

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BERANTEVILLAKO UDALA

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2025eko errolda jendaurrean jartzea eta kobratzeko aldia irekitzea

Egin da trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren 2025eko errolda, eta jendaurrean egongo da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu ondorengo egunetik aurrera, interesa dutenek egokitze jotzen dituzten erreklamazioak aurkez ditzaten.

Ediktu honek, orobat, betetzen du erroldan sartuta dauden likidazioak kolektiboki jakinarazteko zeregina, Arabako Zergen Foru Arau Orokorraren 98.3 artikuluan eta Zergabilketarako Arautegi Orokorra onesten duen uztailaren 29ko 939/2005 Errege Dekretuaren 24. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak izanik, berraztertze errekurtsioa jarri ahal izango zaio alkateari, ordainketa egiteko borondatezko epean edo epe hori amaitu eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen.

IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ORDAINTZEKO EPEA

A) Borondatezko epea: 2025eko urriaren 10etik abenduaren 10era, egun bi horiek barne.

Helbideratutako ordainagiriak baimendutako finantza entitateetan kargatuko dira, 2025eko urriaren 30ean.

Ordainketa helbideratuta ez duten zergadunek Kutxabankeko edozein bulegotan egin beharko dute, ordainketa gutuna udalean jaso ondoren.

B) Kobratzeko betearazte aldia: 2025eko abenduaren 11tik aurrera betearazte aldiari emango zaio hasiera, eta epe exekutiboko errekarquak, premiamendu murriztukoak nahiz arruntekoak, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrean adierazitako epeetan ordaindu beharko dira.

Berantevilla, 2025eko irailaren 4a

Alkatea

ISABEL ARBAIZAGOITIA PERAL